ataria

Artearen hiztegia

Euskara

Erakunde eta eragile sozialek Tolosaldeko Euskararen Mahaia jarri dute martxan Galtzaundi Euskara Taldearen koordinazioarekin

2019-01-04
983. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa

Haragia

Goseteak eta desnutrizioa obesitate tasa altuen bizikide diren aro honetan, munduko ipar-mendebaldean dieta iraultzaileak puri-purian daude. Beganoa, makrobiotikoa, disoziatua... elikaduraren itun zaharra bilakatu da dagoeneko dieta mediterraneoa. Geure kredoa dena dela, bada datu objektibo bat: proteinak beharrezkoak ditugu.

Dieta osasuntsu batean, kalorien %35aren jatorriak proteikoa izan beharko luke. Gorputzeko ehunak osatu edota konpontzeko beharrezkoak ditugun aminoazidoez hornitzen baikaituzte. Baita intsulina bezalako hormona batzuen sorkuntzan parte hartu ere. Pertsona bakar batek 76 gramo hartu beharko lituzke eguneko, munduko populazioak gomendio hau beteko balu 202.000 milioi proteina inguru kontsumituko lirateke urteko. Handituz doan giza-populazioari erreparatuz gero, behar hauek aseezinak izango dira berehala. Sostengaezinak. Zergatik? Ba askoren proteina iturri nagusia haragia delako.

OLATZ GODOY
KALE KANTOITIK 107.6 FM

Jakina da haragiaren ekoizpenak ingurumenean eragin handia duela, ur eta argindar asko erabiltzen delako jarduera honetan. Behi haragiaren produkziorako karbono aztarna izugarria da, adibidez, eta metano isuriak ere sortzen dira. Gas hauek negutegi efektuaren eragileen %15a osatzen dutela esaten da. Hauek datu kezkagarriak dira eta munduan populazioa ez ezik, haragiaren kontsumoa gora doala ikusita... tira. Gaur egun munduko nekazaritzaren baliabideetatik %70 erabiltzen ditu haragia ekoizteak. Oihanen txikizioaren arrazoi nagusietako bat da behiak elikatzeko behar diren hazien produkziorako eraldatzen direla eremu hauek. Planeta osoko gainazalaren %50a hartzen du industria honek dagoeneko! Eta honi guztiari, animalien sufrimendua eta heriotza eragin beharra gehitu behar zaio.

Beraz, zein da konponbidea? Nola ase geure beharrak ingurua suntsitu gabe? Haragia kontsumitu dezakegu animaliarik akabatu gabe? Bada, ez nuke gaitz hauen guztien panazea gisa aurkeztu nahi... baina aurreikusten den baliabideen eskasiaren aitzinean, enpresa batzuk haragi sintetikoa sortzen hasi dira. «Haragi garbia» deritzona.

Badira urte batzuk kontzeptu hau garatzen hari dela, baina orain Euskadin dugu ate joka: Biotech Foods izeneko Donostiako enpresa batek, zelula jakin batzuk baldintza optimoetan hazi eta ugaldu araztean haragi artifiziala sortzea lortu du. Euren sistemaren funtsa medikuntza birsortzailea da, ehun lagin txiki bat hartuta (gihar, gantz, odol, ur, kartilagoz... osatua) organismo biziak lortzen dituztelarik. Prozesua naturala da, produktu kimiko eta manipulazio genetikorik gabe ematen dena: elikagaiak, 37 graduko tenperatura eta airearen laguntzaz bakarrik. Bioerreaktoreen bidez maila industrialean ekoiztu eta 2021 urtean merkaturatzeko asmoa du abangoardiako enpresa honek.

Prozesu hauen bitartez lortzen den haragi orea maneatuz; hanburgesak, haragi-bolak, saltxitxak eta abar sortzen dira. Ehun lagin bakar batengandik 200 txerriren haragia kontsumituz lortuko genukeen produktu berbera eskuratzen delarik. Hona «haragi etikoa» beraz, «haragi kultibatua» edo «garbia». Haragi produkziorako behar dugun lur-azalera %99ean, ur kontsumoa %90ean eta gasen igorpena %90ean murriztuko duena, antza. Eta animalien ongizate eta eskubideak bermatu, idealki.

Azalpen guzti hauen atzean mesfidantza kutsu bat sumatuko zenuten ziur. Baina ez Biotech Foodsenganakoa, ezta haragi artifizialarenganakoa ere. Ez naiz geure gizarteaz fio. Geure sistemaren funtzionamenduak asko aldatu beharko luke eta, berrikuntza honen erabilera modu zuzenean zabaltzeko. Haragi artifizialak edo sintetikoak etorkizunean garrantzi izugarria izango du agian. Agian, naturari egin diogun kaltea erreparatzen hasteko bidea zabalduko digu. Laborategietan sartu eta bertan ekoizteak, naturatik urrutiratuz naturarengana gerturatu gaitzake berriro. Agian. Edo agian ez. Baina oraintxe bertan dugun produkzio eredu ustiatzaileaz beste egon daitezkeen alternatibak gogoan hartzeko modukoak dira, dudarik gabe. Honekin diotsuedana beraz zera da: itun berri honen apostolu ez naizen arren, fededun apala izaten saiatuko naizela.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS–1323–2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

tolosaldeko ataria

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM–KO KIDEAK:
BERTAKO HEDABIDEAK · galtzaundi · berria · Txolarre
Tolosaldeko gizarte eragileak

bai euskarari · Bikain

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania–Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu–Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa–Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Azaleko irudia:
Josu Artutxa

www.ataria.info · 107.6 fm · 105.0 fm
2019ko urtarrilaren 4a

Ibarrako KZ guneko lokal batean kokatu dute jaso duten arropa guztia. Irudian, antolatzaileak gauzak txukuntzen . IMANOL GARCIA LANDA

Beharrak kolektiboki asetuz

Ibarrako Gazte Asanbladak eta Antolakuntza Komunalak arropak kolektibizatzeko proiektua jarri dute martxan

Irati Saizar Artola

Behar bat kolektiboki asetzeko helburuarekin hasi dira proiektua lantzen Ibarrako Gazte Asanbladako eta Antolakuntza Komunaleko kideak, elkarlanean; kasu honetan, langile klaseko kideen arroparen beharra asetzea da lortu nahi dutena. Horretarako, lokal bat prestatu dute arropa ezberdinekin Ibarrako KZ guneko gela batean.

Behar hori truke balioan oinarritu beharrean kolektiboki eta elkartasunaren bidez asetzea ere bada asmoa. Antolatzaileek azaldu dutenez, «klase elkartasuna martxan jarri eta gure harremanak bide horretan garatzera bideratutako proiektu bat da».

Langile klaseko sektorean bertan ezberdintasunak nabaritzetik etorri zitzaien ideia: «Alde batetik, batzuk arroparen beharra daukatela ikusten genuen, hau da, arropa lortzeko ezintasunak dituztela. Eta aldi berean, nabaritzen genuen langile klaseko beste sektore zabal batek beharra asebeteta zuela eta arropa soberan zuela». Mugarik jarri gabe lotu nahi izan dute proiektua: «Gehiago duenak gehiago emango du eta gehiago behar duenak gehiago hartu».

Hori horrela, kolektibizazioaren bidea, bide posible bezala marraztu eta kolektiboki irtenbide bat diseinatu dute. Hasiera batean, Ibarrako Gazte Asanbladakoak hasi ziren proiektuarekin, baina bide horretan, arropaz gain beste behar batzuk kolektiboki asetzeko hautua egina zuten Antolakuntza Komunalekoekin egin zuten topo. Bien arteko elkarlanean eraman dute proiektua aurrera.

Udalak gaztetxekoei gauzak gordetzeko KZ guneko lokal bat utzi izan die urteetan zehar, eta egun, erabilerarik ez duela ikusita, proiektua bertan egitea erabaki dute asanbladakoek: «Auzolanean hezetasun arazoei aurre egin genien, mural ezberdinak marraztu ziren eta gaur-gaurkoz erabiltzeko prest eta biziberrituta aurkitzen dela iruditzen zaigu».

Hiru deialdi egin dituzte herriko plazan arropa biltzeko, eta jendearen erantzuna «oso ona» izan dela nabarmendu nahi izan dute. Mota eta taila ezberdinetako prendak jaso dituzte, eta lokalean jarritako armairu eta apal ezberdinetan ordenatzen aritu dira. «Arropa kantitatea hain da handia, oraindik lana geratzen zaigu dena sailkatzeko».

Lokala, bi astez behin, bi egunetan irekiko dute; astearteetan 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara. Egun horietan, arropa hartzeko aukera izango da, baina baita nahi duenak uztekoa ere. Egun horiek, ordea, behin-behinekoak dira. Badaezpada, hilabete edo bi hilabetez behin egutegi bat kaleratuko dute datak zehaztuz. Momentuz, urtarrila amaitu arteko egunak aurreikusita dituzte: urtarrilaren 8, 12, 22 eta 26an irekiko dute.

Tolosako Kultur Etxeko beheko solairuan dago zabalik, goiz eta arratsalde. IRATI SAIZAR

Merkatu txikian erosteko aukera zabalik, bihar arte

Laskorain ikastolak urteak daramatza merkatu txikia kultur etxean antolatzen; bihar 20:00ak arte izango da zabalik

Irati Saizar Artola

Azken eguna gertu du merkatu txikiak. Bihar, 20:00etan itxiko ditu ateak Laskorain ikastolak antolatzen duen azokak. Saltzeko dagoen material guztia erdi prezioan jarri dute, azken ostikoak emateko asmoz. Kultur etxeko beheko solairuan egin diote lekua urtero lez, eta goizez nahiz arratsaldez dago irekita, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

Lortutako dirua hiru elkarte ezberdinen artean banatuko dute: Ibarrako Misio Taldearen, Baltistan Fundazioaren eta Tolosaldea Sahararekin elkarteen artean, zehazki.

Hogeita zazpi urte inguru daramatzate ekimen hau antolatzen; Laskoraingo ikasleak oporretan daudenean irekitzen dute, hala, txandak egiten dituzte antolatzeko. Azoka ixten denean, aurten Errege egunean, Emauseko Trapuketariek jasotzen dituzte saldu gabe geratutako material guztiak.

BANATU DUTE GABONETAKO SASKIA LEABURU-TXARAMAN

Iñaki Goñi Ruiz eta bere familiak jaso dute Udalak herritarren artean urtero zozketatzen duen Gabonetako saskia. Zenbaki sariduna 65-B izan da, eta Gabonetako ludoteka zerbitzuan dabiltzan haurrek egin dute zozketa.

Negu Trail lasterketan apuntatzeko epea, zabalik

Berastegi. Hilabete eskas geratzen da Berastegiko II. Negu Trail lasterketarako. Otsailaren 3rako dute aurreikusita lasterketa eguna, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Urtarrilaren 31ra arte zabalik izango da ondorengo loturan: *www.herrikrosa.eus*-en. 16 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariek Berastegi inguruko mendietatik, eta iazko arrakasta ikusita, 300 lagunentzat prestatzeko asmoa erakutsi dute antolatzaileek.

tolosaldeko ataria
ataria irratia · ataria internet · ataria prentsa
Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

PERTSONENGAN INBERTITU NAHI DU UDALAK

Anoetan, 2019an, 2,6 milioi euroko aurrekontua izango du udalak, eta besteak beste, gaztelekua eta ikastolako berrikuntza lanak izango dira urteko inbertsio nagusiak

Anoetako Gaztelekua kokatuko den behebarrua, babes ofizialeko etxebizitzen behaldean. J.M.

Jon Miranda

Aurtengo aurrekontua da, baina etorkizunean pentsatuta egindakoa. «Gerora gizarte hobea eta jasangarria nahi badugu, orain umeak diren horiengan inbertitu beharra dago», esan du Pello Estanga Anoetako alkateak. Ume horietako gehienak, 400 gaztetxotik gora, Anoetako Herri Ikastolan dabiltza gaur egun, eta ikastetxeko ordezkariek pedagogia proiektua berritu eta hobetzeko eginahalean, eraikinean aldaketa handiak egin dituzte. «Ikastola herriko hezkuntza eskaintza bakarra denez eta eraikina udalarena izanik, 1,2 milioi euroko obraren heren bat, 500.000 euro inguru finantzatzea onartu genuen», esan du Estangak. 2019ko aurrekontuan, esate baterako, 120.000 euro gordeko dituzte lan horietarako.

Konfiantzaren pedagogian oinarrituta, lehen aterpea zegoen tokian bi solairuko eraikin berria egin dute Anoetako Herri Ikastolan, espazio gardena da, igogailu eta guzti. Orain, ordea, estalpe gabe geratu dira eskolan: «Gurasoak ume bila joaten direnean aterpe gabe geratu dira, eta umeak ere, patio garaian euria egiten badu, kanpora ezin atera, eskola barruan geratzen dira». Horregatik, 2019ko aurrekontuan 150.000 euroko diru sail bat gorde dute, Anoetako Herri Ikastolan aterpe berria egiteko. Hitzarmena sinatua du udalak ikastolarekin, eta aterpea egiteko lanak lehenbailehen hasiko direla aurreikusten du Estangak.

> **«Gerora gizarte hobea eta jasangarria nahi badugu, orain umeak diren horiengan inbertitu beharra dago»**
>
> **«Behintzat gaztetxoek leku bat izango dute eskura eta begiraleen laguntzaz jarduerak egin ahal izateko»**
>
> **PELLO ESTANGA**
> ANOETAKO ALKATEA

2019KO AURREKONTUA

AZALPENA	€
Pertsonal gastua	692.485
Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	763.135
Finantza gastuak	900
Transferentzia arruntak	394.337
Kreditu globala	77.000
Inbertsio errealak	515.000
Finantza aktiboak	0
Finantza pasiboak	180.000
GUZTIRA	**2.622.857**

INBERTSIO NAGUSIAK

AZALPENA	€
Gaztelekua egokitzea	220.000
Ikastolako aterpea	150.000
Ikastolako obra	120.000
Bestelakoak	25.000
GUZTIRA	**515.000**

Gazteleku berria

Joan den urteko abenduaren 17an aho batez onartu zuen 2019ko aurrekontua Anoetako Udalak. 2,6 milioi eurokoa izango da, iaz baina «dezente handiagoa» alkatearen esanetan: «Foru funtsaren ekarpena hazi egin da eta udalak Lasarbeko urbanizazioa egin bitartean bertako bizilagunei ostatu emateko erosi zituen babes ofizialeko bi etxebizitzak saldu eta diru hori udal altxortegira itzuli da».

Hain zuzen, babes ofizialeko eraikin horren azpialdean kokatzen diren lokaletan egingo du udalak 2019ko inbertsio nagusienetako bat: gaztelekua. «Bere garaian egin zen parte hartze prozesuan erabaki zen espaziorik zabalenean kokatzea liburutegia eta ikasgela. Beste aldera geratzen den tokian erabilera anitzeko gela bat jartzea hobetsi zuten herritarrek, eta atzealdekoan, berriz, gaztelekua». Azkeneko bi espazio horiek atontzeko, 220.000 euro bideratuko dira aurten.

Foru Aldundiaren Gaztematika programaren bitartez erabakiko da 16 urtetik beherakoentzat bideratutako espazioak izango dituen ezaugarriak. «Behintzat, gaztetxoek leku bat izango dute eskura eta begiraleen laguntzaz jarduerak egin ahal izango dituzte».

Plazan estalpea jartzea adostu dute

Elizako aterpetik plazaren beste aldera doan espazioak lortu du kontsentsu gehien herrian

Anoetan estalpe baten beharraren inguruan hausnartzeko parte hartze prozesua jarri du martxan udalak, azken hilabeteetan. Aztiker enpresak gidatu du prozesua eta hiru lan saio egin dira. Orain, herritarrek egindako ekarpenekin Nahikari Calleja herriko arkitektoa ari da proiektua lantzen. Aurki esku artean izatea espero dute udal ordezkariek.

Kontentu dago Anoetako alkatea herritarrek izan duten erantzunarekin: «Kontsentsura nahikoa azkar iritsi ginen lehen saioan. Euria zein eguzkia egiten duenean babesteko erabilgarria izango den aterpe baten beharra ikusi zuen jendeak, herrian egiten diren ekitaldiak eguraldiak baldintzatu ez ditzan». Gaur egun, Anoetan badira beste espazio batzuk, baina ez dituzte betetzen estalpeari eskatzen zaizkion funtzioak. «Frontoia, esate baterako, eskola pilota eta bestelako ekimenekin nahikoa beteta egoten da», esan du Estangak.

Behin lehen bilera amaituta, beste herritarrekin iritziak konpartitu ostean, hasierako ideia aldatu zutela adierazi zuten parte hartzaile batzuek eta oso ondo baloratu zuten iritzi trukea. «Ume txikien gurasoek parkea estaltzeko ideia ekarri zuten bilerara, baina berehala konturatu ziren beste behar batzuk ere bazeudela herrian». Beraz, ez da soilik umeentzako aterpea izango urte osoan zehar erabiltzeko espazio bat irudikatu dute herritarrek, helduek ere erabili ahal izango dutena.

Bigarren bilera batean estalpearen kokapen eta dimentsioen inguruan hitz egin zuten. Plaza inguruan behar zuela argi zuten parte hartzaileek. Bi aukera planteatu zituzten bigarren lan saioan eta elizako aterpetik plazaren beste aldera doan espazioak lortu zuen kontsentsu gehien. «Espazio aprobetxagarria da, azalera handikoa, eta batez ere, ez du baldintzatzen gaur egungo plazaren erabilera». Inoiz zimiterioarekin bat egiteko aukera ere ematen du kokapenak, nahiz eta alkatearen hitzetan horrek gotzaindegiarekin negoziatu beharra ekarriko lukeen. «Saiatu gabe, hala ere, ez gara geratuko».

Prozesuak iraun duen denbora guztian, herritarrek ekarpenak egiteko formulario bat izan dute eskura Anoetako Udalaren webgunean. Gainera, bilera guztietako aktak eta erabili diren irudiak kontsultatzeko aukera izan dute atari horretan.

Modu horretara, azaroaren 28an egin zuten estalpearen ezaugarri eta materialen inguruan hausnartzeko bilera. Callejak bilera horretan aurkeztutako hiru aukeretatik hirugarrenaren alde egin zuten bertaratutakoek eta adostu zuten, burdina eta egurra konbinatzea aterpean. «Espazio arin bat irudikatzen zuten gehienek, argia sartzea ahalbidetuko duena eta elementu berdeak izango dituena», esan du alkateak. Hain zuzen, teilatuaren inguruan zentratu zen eztabaida azken bileran eta beste hainbat tokitako aterpeak jarri zituzten eredutzat. «Erreferentziala izango den espazio bat izango da, beraz, polita geratzea da nahi duguna». Arkitektoak aipatutako aukerekin azken proiektua landuko du eta bilera bat egingo da herritarrekin, adostutako emaitza aurkezteko.

Haurrentzako parkearen eta plazaren artean kokatuko da estalpe berria. J.M.

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko urtarrilaren 4a

Zerbitzua zabaltzeko eskaera

Amasa-Villabona eta Larraulgo udalek, orain arte, TO08 eta TO07 autobus lineatan aldaketak proposatu dituzte

Erredakzioa

Amasa-Villabona Udaleko Maria Luisa Arija zinegotziaren ekimenez, 2018 eta 2019ko aurrekontuetan 3.000 euroko partida ekonomikoak onartu ziren, subentzionatutako taxi zerbitzu baten bitartez mugikortasuna hobetzeko. Modalitate honek dituen zailtasunak aztertuta, zinegotzi sozialistak, Amasarekiko dagoen komunikazioa garraio publikoaren bidez hobetzea proposatu du.

Amasako auzoa herritik kilometro batera dago gutxi gorabehera eta Emeterio Arrese kalean eraiki diren etxe berrien ondoren, gora egin du bertako biztanleriak. Udal gobernuak aipatu duenez, «12 urteren ondoren, Maite Izagirre alkateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza sailarekin harremanak berreskuratu ditu eta elkarrizketa horiek fruitua emango dute aurki. Gainera, epe ertainera aurkeztu eta onartuko den Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, Amasan bertan hirigintza proiektu berriak garatzea ahalbidetuko du».

Horregatik, gobernu taldeak eta Maria Luisa Arija PSE-EEko kideak, ekimen bat aurkeztuko diote Marisol Garmendia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako departamentuko diputatuari, momentu honetan Larraul - Asteasu- Zizurkil - Villabona - Aduna ibilbidea egiten duen TO08 autobus lineak Amasako plazan geldialdi bat izan dezan.

LARRAULEN ESKAERA

Batxilergoa egiten duten Larraulgo ikasleek, egun, ez dute bere erreferentziazko zentrora garraio publikoa erabiliz joateko aukerarik. Tolosaldeak eskaintzen duen zerbitzuaren arabera, goizero ibilgailu partikularretan joan behar izaten dute Asteasura eta eguerdian bertan jasotzen dituzte, modu partikularrean. Herri gaztea izanik, gero eta gehiago dira eta izango dira egoera honetan dauden erabiltzaileak eta Larraulgo Udalak uste du egoera honi erakundeetatik konponbidea emateko ordua heldu dela.

Egokiena, TO07 zerbitzua (Asteasu-Tolosa) Larrauleraino luzatzea izango dela uste du udalak, ordutegi hauetan: Gaur egun Asteasutik ateratzen diren 07:20ko eta 08:30eko zerbitzuak, Larraulen 5 minutu lehenago izatea abiapuntua, hau da 07:15ean eta 08:25ean Larrauletik abiatu eta gero ohiko ibilbidea egiteko; Era berean Tolosatik ateratzen diren 14:20ko, 15:30eko eta 16:30eko autobusen azken geltokia Larraul izatea, hau da Asteasuko geldialdia egin eta gero, bertako ikasleak Larrauleko plazara igotzea.

Egungo ordutegien balioa abenduaren 31n bukatu zela jakin du Larraulgo Udalak, beraz, urte berriarekin hobekuntza hau hasteko moduan izatea espero du.

HERNIALDEKO UREN SANEAMENDURAKO PROIEKTUA GAUZATZEN ARI DIRA

Gipuzkoako Foru Aldundia ari da lanak egiten eta irailean sinatu zuen kontratua Altuna y Uria enpresarekin. 1,2 milioi euroko kostua dute lanek eta 11 hilabeteko epean bukatzea aurreikusten dute. J.M.

LOATZON EMAN DIOTE ONGIETORRIA URTEARI

Urteroko ohiturari jarraituz, urtarrilaren 1ean eta urte berriari ongietorria emateko, Aizkardi mendi elkarteak irteera antolatu zuen Loatzo mendira. Aurten ere horrela egin dute eta asteartean topa eginez egin zioten harrera mendizaleek 2019ari. ATARIA

Hondakin organikorako poltsak eskuratzeko aukera

Zizurkil. Urrian Hondakinen Programa martxan jarri zenez geroztik, poltsa konpostagarriak banatzeko eskaera egin diote herritarrek udalari. Poltsa hauek derrigorrez erabili behar dira organikorako, plastikoak ekidin eta organikoaren kalitatea egokia izan dadin, eta konturatuta garesti xamarrak direla, udalak eskaera horri erantzutea erabaki du. Bilkari bakoitzean 37 poltsa daude, eta 3 hilabetez behin jaso ahal izango dute etxe bakoitzeko bilkari bana.

Santiago egoitzara bisita egin dute udal ordezkariek

Amasa-Villabona. Egoitzako egoiliarrekin batera, giro onean ospatu zuten Gabon festa eta udal ordezkariek opariak banatu zituzten. Abenduaren 20an, Maite Izagirre (EAJ) alkatea eta Maria Luisa Arija (PSE) eta Arantxa Lopez (EH Bildu) zinegotziak, Santiago egoitzan izan ziren bertako erabiltzaileei Gabonetako opariak banatzen. «Giro ederrean, poztasunez», ospatu zuten Eguberrietako festa udal ordezkariek jakinarazi dutenez.

Urte berrirako eskaintza egin dute Olaederra kiroldegian

Matrikulazio berriak egin edo egungo bazkidetzak berritzeko aukera izango da datorren urtarrilaren 31ra arte

Erredakzioa

Iazko abenduaren 27tik, aurtengo urtarrilaren 31ra, bazkide zaharrek matrikula ordaindu gabe bazkidetza egiteko aukera izango dute. Sei hilabeteko bazkidetza mantentzea da bete beharreko baldintza bakarra.

Orain arteko bazkideak, urtarrilean, bazkide berri bat aurkezten badu, %20ko beherapena izango du 5 hilabetetako kuotan, eta bazkide berriak, urtarrileko kuota dohainik izango du. Horretarako derrigorrezkoa izango da bazkide berria 22 urtetik gorakoa izatea eta gutxienez 6 hilabetez, ekaina bitarte, bazkidetza mantentzea.

Jarduera batean izena emanda dagoen bazkide batek, beste bazkide bat eramaten badu kiroldegira edozein jarduerara, eta azken hau ez bada aurreko hiru hilabeteetan izena emanda egon, bi bazkideek %20ko deskontua izango dute (3 hilabeteetako jardueretarako bakarrik balio du aukerak).

Olaederra kiroldegiko harreran edo 943 694 322 telefono zenbakira deituta jasoko dute interesatuek matrikulen inguruko informazio guztia.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • **Harpidedunentzat 50 €**

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • **Harpidedunentzat 75 €**

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • **Harpidedunentzat 25 €**
bez barne

ataria**n** jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Finalerdietarako txartelari eusteko hitzordua, Beotibarren

Iñaki Artola eta Jon Mariezkurrena bihar ariko dira, 16:30ean, Joseba Ezkurdia eta Ladis Galartzaren aurka

Itzea Urkizu Arsuaga

Joan den asteazkenean izan zuten pilota aukeraketa, Beotibar pilotalekuan. ASPE PELOTA

Binakako txapelketako bigarren itzuliari ekin aurretik, azken jardunaldia izango dute bikoteek, datorren asteburukoa. Finalerdietara pasatzeko postuei eusteko aukera izango dute taulako lehen laurek, eta tartean dira Iñaki Artola alegiarra eta haren bikotea, Jon Mariezkurrena. Joan den asteazkenean izan zuten pilota aukeraketa, eta bihar jokatuko dute norgehiagoka, Tolosako Beotibar pilotalekuan, Joseba Ezkurdiaren eta Ladis Galartzaren aurka.

Artola-Mariezkurrena bikoteak aukeratutako pilotek honako pisua dute: 106.6, 104.7 eta 106.2 gramo. Ezkurdiak eta Galartzak, berriz, 106.4, 105.6 eta 106.5 gramoko pilotak sailkatu zituzten, biharko.

Joan den azaroan txapelketa hasi zenez geroztik, zazpigarren jardunaldia izango da gaur bertan hasiko dena; asteburuko norgehiagokekin amaituko dute, lehen itzulia.

Horrela, nahiz eta binakako txapelketaren bidea luzea izan, taulako lehen lau bikote sailkatuak finalerdietarako txartelari eusten ahaleginduko dira. Olaizola II-Albisu, Irribarria-Zabaleta eta Elezkano-Rezusta bikoteen ondotik, Artola eta Mariezkurrena laugarren sailkatuak dira, momentuz. Biharko aurkariak bosgarren dira zerrendan; partidak, beraz, alda lezake taula, edo tarteak handitu.

Beotibarko partidarako sarrerak eskuragarri dira interneten, eta palkoetako eta kantxako eserlekuak baino ez daude eskuragarri.

Bi partida izango dira jaialdian eta, partida nagusiaren aurretik, Ugalde eta Jaunarena ariko dira, Etxeberria eta Garmendiaren aurka.

Jokin Altuna, Labriten

Egun berean eta beste pilotaleku batean ariko dira, Altuna eta Martija eta Bengoetxea eta Imaz bikoteak.

Seigarren eta zazpigarren sailkatuak dira, hurrenez hurren, eta berdinduta daude, gainera, galdutako eta irabazitako partidei begiratuz gero. Norgehiagoka hori ere garrantzitsua izango da, beraz. Bihar, 17:45ean hasiko da jaialdia, Iruñeko Labriten.

ataria ko arkua
zure herriko
jai edo kirol ekitaldietan
erabili nahi baduzu
eskatu doan:
ataria@ataria.eus • 943 65 56 95



URTEA AMAITZEKO, TALDEKO ARGAZKIA ETA HAMAIKETAKOA

Alegiako Intxurre futbol taldeko kideek behar bezala bukatu nahi izan zuten 2018. urtea. Horrela, joan den larunbatean egin zuten hitzordua, Elorri futbol zelaian. Besteak beste, 2018ak kirol azpiegitura hori berritzeko aukera ekarri die. Taldeko argazkia atera zuten, eta hamaiketakoa egin zuten ondoren. ATARIA

Aurrera doa Migel Soroaren omenezkoa

Urtarrilaren 12an eta 19an jokatuko dituzte txapelketako hurrengo faseko partidak

Erredakzioa

Joan den abenduaren 30ean izan ziren, Ogi Berri Migel Soroa pilota txapelketako azken norgehiagokak, eta finalerdietako bikoteak zehaztu dituzte honezkero.

Iker Salaberriak eta Gorka Otaduik –Iker Mariezkurrenaren ordez aritu zen– Oihan Canabalen eta Arrizabalagaren aurka 22 eta 15 irabazi zuten Tolosako Beotibarren.

Garaipenari esker, finalerdietako partida jokatu beharko dute orain, datorren urtarrilaren 19an, Ioritz Arrietaren eta Josu Zezeagaren aurka.

Salaberriak egin zituen tanto gehien, 15. Otaduik tanto bakarra egin zuen, Canabalek 9 eta Arrizabalagak ere bat. Jokoak, orotara, 47 minutu iraun zituen.

Aipaturikoa, ordea, ez zen abenduaren 30ean jokatutako partida bakarra izan. Ioritz Egigurenek eta Joseba Sarasak Iñaki Elolaren eta Joseba Aldaberen aurka jokatu baitzuten norgehiagoka. Lehen bikoteak lortu zuen garaipena, 22 eta 11ko emaitzarekin.

Lehen zatian asmatu izanak salbatu zien partida, Egiguren eta Aldaberi. Izan ere, partida motel hasi zen, baina pixkana bere lekua hartu zuen Egigurenek, tanto politak utziz. Guztira 9 egin zituen, eta 2 egin zituen Sarasak. Elolak, berriz, 7 egin zituen, eta Aldabek ez zuen punturik egitea lortu norgehiagokan.

Egigurenek eta Aldabek, beraz, hilaren 12an jokatuko dute azken aurreko itzulian, Iraitz Zubizarretaren eta Endika Uriondoren aurka.

Errege egunarekin amaituko dute Gabonetako Shanti futbol txapelketa

Ohiturari eutsiz, igandean, 09:00etan hasiko dira txapelketako finalak; eguerdian banatuko dituzte sariak

Erredakzioa

Eguberrietako oporraldia hasi zenez geroztik, Usabal kiroldegia gaztetxoen topagune nagusienetako bat izan da Tolosan. Urteroko moduan, Shanti txapelketa jokatzen aritu dira, ehunka neska-mutil.

Bada, Errege egunarekin amaituko da txapelketa, 09:00etan hasita. Kategoria guztietako norgehiagokak jokatutakoan, sari banaketa izango da eguerdian, festa biribiltzeko.

Intxaur saltsa krepea

Gabonen bueltan garai batean ohikoa zen intxaur saltsa ekarriko dugu, baina guk zertxobait bereziago egiteko intxaur saltsaz beteriko krepeak egingo ditugu. Intxaurra bertako fruitua denez oso ohikoa zen, eta postre moduan erabiltzen zuten intxaur saltsa Gabon egunen bueltan. Garai batean, berriz, bijilia egunak ziren eta ezin zenez haragirik jan, bakailao saltsa loditzeko erabiltzen zuten. Baina guk ez dugu bakailaorik erabiliko eta intxaur saltsa prestatzen hasiko gara.

Esne pixka bat aparte utziko dugu, eta beste guztia esne-gainarekin eta kanela zotzarekin batera jarriko dugu berotzen. Irakiten hasten denean sua itzali egingo dugu, eta lapikoa tapatuta jarriko dugu 10 bat minutuz.

Bitartean, birringailuan, intxaurrak eta azukrea, biak batera jarriko ditugu. Birringailurik ez badugu etxean, motrailu edo morteroan txikitu ditzakegu. Zergatik sartzen ditugu biak batera? Intxaurrek txikitzean duten olioa askatzen dute, eta guk olio hori ez galtzeko azukrea jarriko diogu, horrela azukreak xurgatuko digu olio hori. Komeni da beti biak batera txikitzea.

AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA

Gorde dugun esne hotz apurrari, maizena koilarakada botako diogu, eta baita arrautza gorringoa

OSAGAIAK

INTXAUR SALTSA

- 100 gramo intxaur zurituta
- 250 mililitro esne-gain
- 250 mililitro esne
- kanela zotz bat
- 80 gramo azukre
- Koilarakada bat, arto irin fina (maizena)
- Arrautza gorringo bat

KREPEAK

- 3 arrautza
- Litro erdi esne
- 250 gramo irin
- 75 gramo azukre
- Gatz pixka bat
- Gurin pixka bat

ere. Maizena nahasteko, beti hotzean nahastu behar da, beraz horregatik gordeko dugu esne pixka bat. Eta guztia ondo-ondo nahastuko dugu.

Jarraian, tapatuta utzi dugun eltzera, hau da, esnera botako ditugu bai intxaur txikituak eta baita maizena ere. Eta berriz irakiten jarriko dugu, kanela zotza aterata. 10-15 minutuz irakiten utziko dugu, eta loditzen hasiko da. Ez zaigu komeni oso-oso lodia izatea krepeak betetzeko erabili behar dugulako. Pure likido bat izatea komeni da.

Ontzi batera aterako dugu eta lau bat orduz hozten utzi behar dugu egin dugun saltsa. Berez, jateko moduan egongo litzateke, horrela jaten da, hau da, epela jan daiteke edota natilla edota arroz-esne bat bezala. Baina guk hozten utziko dugu, betegarri moduan erabiltzeko, gorputza hartu dezan.

Krepeak, buelta eta buelta

Krepe guztiak berdin egiten dira. Kasu honetan intxaur saltsarekin beteko ditugu, baina kakao krema batekin edo esne-gainarekin bete ditzakegu. Bere horretan ere jan ditzakegu gosaltzeko esaterako. Eta gaziak egin nahi baditugu, azukrea kendu, eta listo.

Kasu honetan garrantzitsua da osagaien kantitateak zehatz erabiltzea, eta guztiak ontzi batean jarriko ditu, baina lehenengo likidoak jarriko ditugu eta jarraian solidoak gehituko ditugu irabiagailuarekin nahasteko.

Dena irabiatuta dugunean, zartagin bat jarriko dugu berotzen. Gurin pixka batekin igurtziko dugu, baina orain zartagin askok ez dute gurinik ere behar ez direlako itsasten.

Zartagina bero-bero dagoenean likido pixka bat botako dugu zartaginaren ipurdi guztira zabalduz, eta pixka bat itxaron ostean buelta emango diogu krepeari. Ahal dugun moduan, nik, behatzekin egiten dut.

Trukoa, espatula batekin iskinak pixka bat harrotzea izango litzateke, eta jarraian behatzekin hartu eta azkar batean buelta ematea. Buelta ematean beste segundo batzuk itxaron eta hurrengoa egitea izango litzateke, buelta eta buelta, likido guztia amaitu bitartean. Esan behar da, lehenengo krepea beti gaizki ateratzen dela, ez kezkatu horrekin.

Forma ematea

Lau orduz itxaron ostean edota bezperan egin dugun intxaur saltsa hori hartuko genuke, eta krepearen gainean jarriko genituzke pare bat koilarakada. Ondo zabalduko genuke azalera osoan, eta aukera bat hiruki itxura ematea izango litzateke: erditik tolestu, eta berriz ere erditik tolestu. Hau da, beti itxura edo forma horrekin ikusi ditugu krepeak. Bestela, biribildu egin ditzakegu *rollito* antzeko bat eginez.

Polit jarri nahi baditugu, azukre hauts pixka bat bota diezaiokegu gainetik. Kanela zaleak bagara, kanela hauts pixka bat ere bai.

Eta norbaiti intxaur saltsa ez bazaio gustatzen konpotarekin ere bete daitezke.

Belarmendi
Mendiko nekazaritza S.L.

LAN ESKAINTZA: TRAKTORE GIDARIA

EGINKIZUNAK
• Baserritarrentzako eta udalentzako makinaria zerbitzuak: belar lanak, gurdi lanak, bideen desbrozatzea, pista konpontzeak.

ESKATZEN DENA
• Ezinbestekoa gida baimena, ibilgailua eta euskararen ezagutza.
• Traktore gidaritzan eskarmentua.
• Nekazaritza eta mekanika gaietan formazioa eta esperientzia.
• Tolosaldekoa izatea.
• Ordutegi malgutasuna.

ESKAINTZEN DENA
• Urtebeterako lan kontratua.
• Urtarrila amaierarako lanean hasteko aurreikuspena.

Bidali CV-ak urtarrilaren 9a baino lehen hurrengo helbidera:
belarmendi@gmail.com

«ARTISTA EGOERA KAOTIKO ETENGABEAN BIZI DA ORAIN»

KOLDOBIKA JAUREGI
ARTISTA

Bat-batean ikusi ala ez antzeman, gauzek osotasun bat izan behar dutela kritikatzen duen horietakoa da Koldobika Jauregi. Alkizarrak, orain arte karga gutxi izan ez badu ere, estreinatu berri den 'Dantza' filmean parte hartu du. Hala ere, bere bizitzan zehar ibilaldi bat egin du, bera, eta orokorrean artea, hobeto ezagutzeko.

Josu Artutxa Dorronsoro

Artearen esanahia galdetu gabe botatzen duen horietakoa da Koldobika Jauregi Zinkunegi (Alkiza, 1959) euskal artista. Gizakiak espresatzeko duen modu bat omen da artea. Onerako zein txarrerako. Mundu zabal bat da, kolore askotakoa. Paperezkoa edo egurrezkoa, Koldobika bera bezala. Artea eskualdean inork baino hobeto ezagutzen duen pertsona da, etengabean egin eta egin ari dena. Mila kontuz hitz egin daiteke berarekin. Luze eta zabal aritu da, Ur Maraz, *Dantza* filmaz, Eduardo Chillidarekin izandako harremanaz edota atzerrian ikasitakoaz.

Nola definituko zenuke zure burua? Eskultore bakarrik ez zarelako...

Ez, ez. Hasierako urteetan, bai. Baina urte luzeetan zehar, bitxigintzan, zineman, eszenografian edota arkitekturan ere muturra sartu duen horietakoa naiz; saltsan sartzea gustuko baitut.

Autodidakta moduan hasi zinen duela 42 urte. Orduan, 17 urte besterik ez zenituen. Nola gogoratzen dituzu lehen urte haiek?

Garai hartan guztiak ziren autodidaktak: Oteiza, Chillida, Basterretxea... Hemen hori zen normalena. Bilbo oso urruti geratzen zen. Ni 20 urterekin heldu nintzen hara lehen

aldiz. Beraz, hemen jendeak egiten zituen gauzak ikusiz eta haietatik ikasiz hasi nintzen trebatzen. Ni izatez tornulari egokitzailea naiz, nahiz eta praktikan inoiz ez naizen izan. Maisu industriala ere banaiz. Garai haietan, Alkizako baserri batean aurkitzen nintzen, inora mugitzeko aukerarik izan gabe, eta beraz, lanean bakarka ekin behar izan nuen.

Orduan, lehiaketa batean parte hartu nuen, 17 urterekin. Eskultura motxilan sartuta joan nintzen lana eramatera. Gero, lehen saria eman zidaten, Parisera bidaia bat. «Hau aukera ederra da!», pentsatu nuen. Bat-batean, Alkizatik Parisera. Bilbora baino lehen heldu ginen hara [barreak]. Zazpi eguneko egonaldi bat izan zen. Ordura arte, liburuetan ikusitakoa soilik ezagutzen nuen. Pentsa, orain eguneko ikus dezakegu Paris sarean. Louvre museoa aurrez aurre ezagutzea izugarria izan zen. Munduarekiko bestelako ikuspegi bat zabaltzen zaizu begi aurrean. Egiteko modu berriak ezagutu nituen.

Atzerriko lehen bidaia, Bulgariara egin zenuen, 86an. Hurrengo urtean, berriz, Italian bizi izan zinen.

Amsterdamen ere izan nintzen lehenago. Aitaren lagun baten bitartez hara bidaiatu ahal izan nuen, eta kontrabandoan sartuta ibili behar izan genuen, beste erremediorik ez zelako; akordeoiekin gora eta behera. Atzerrira egindako bidaien ondoren, etxera itzultzean konturatzen nintzen nola bizi ginen hemen. Nire kasuan, gainera, joaten nintzen leku haietan ezagunen bat edo tailer bat izango nuela ziurtatu nahi izaten nuen lehenago. Jaten emango zidan zerbait izatea.

Bestelako bizimodu bat aurkitu nuen herrialde bakoitzean. Estetika aldetik hemen oso itxiak ginen haiekin alderatuz, zati batean, gatazka politikoagatik ere bai. Amsterdamen, esaterako, hippy mugimendua indartuta zegoen orduan. Bulgarian izan nintzenean, berriz, Berlingo harresia zutik zen oraindik. Eskulturaren beste dimentsio bat ezagutu ahal izan nuen, hemen inoiz ikusi eta entzun gabekoa. Guk arteari buruz hitz egiten dugunean, okzidenteko artearekin lotzen dugu dena, eta okzidentea, berez, gauza txikia da: Europa. Gaur egun ez da erakusten Asian bertan zer egiten ari ziren edota zer egiten duten. Zineman antzeko zerbait gertatzen da. Bada, artean are txikiagoa da kanpo ezagutza hori. Kanpoko autore on baten berri izaten dugunean, egun Europan bizi delako izaten da.

90ean, Eduardo Chillidak, Zabalaga Beka eman zizun. Ezustekoa izan zen? Bera izan al da zure erreferenteetako bat?

Oso pozgarria izan zen, gehienbat berak eman zidalako. Beka asko ez ditut jaso, baino hau izan da garrantzitsuenetako bat. Gainera, beka horren truke ez zidan ezer eskatu; normalean instituzioekin ez da horrelakorik gertatzen. 24 urte nituela, erakusketa bat antolatu nuen. Orduko artista ezagun guztiak gonbidatu nituen bertara, baina bera bakarrik azaldu zen, inaugurazioa egin eta pare bat astetara. Ez nuen pentsatzen inor azalduko zenik. Sorpresa bat izan zen, baina aldi berean presio puntu bat ere bai. Bisita amaitu ondoren horrela esan zidan: «Hurrena zerbait egiten duzunean, deitu». Hura izan zen berarekin izandako lehen kontaktua. Handik pare bat urtetara, erakusketa handiago bat egin nuen, eta noski, bera gonbidatu nuen. Berriro azaldu zen. «Erakusketa bat egiten duzun bakoitzean, deitu», esan zidan orduan.

25 urte luze iraun zituen adiskidetasun baten hasiera izan zen. Urte guzti horietan elkar ikusten genuen; jendeak, gainera, berarekin lan egiten nuela pentsatzen zuen, baina ez zen horrela, berak ere nahi ez zuelako. Mila gauzez hitz egiten genuen. Gerora, Alemanian ere elkarrekin egon ginen. Niretzat noski izan zela erreferente bat, influentzia bat, egiten zuena asko gustatzen zitzaidalako, baina kasualitate bat ere izan zen. Beste batek beka hura emanez gero, beste batekin egingo nuen berarekin egindako laguntasuna. Basterretxea, adibidez, jauntxo bat zen, bestelako artista bat. Egun, ordea, artista askorekin dut harremana, urteetan mantendu dudana.

Mende berriko lehen hamarkadan (2000-2010), lan handiak egin zenituen. Tartean, Tolosaren 750. Urteurrenerako erakusketa, edota Bilboko Guggenheim museoan ere indibidualki erakutsi duzu zure ofizioa. Esan daiteke orduan heldu zinela gorenera?

Eskulturgintza bide bat da, kolpean igotzen ez dena. 42-43 urtetan gauza asko pasatzen dira. Bai izan zirela lan garrantzitsuenak. Guztia, baina, Alemanian hasi zen; hara bidaiatu ahal izan nuen, Nafarroan ezagututako mezenas bati esker. Bertan sei urte igaro nituen, haur bat bezala baino, helduagoa nintzela joan nintzen, integratuago sentitu ahal izateko. Informazio pila zegoen, museo bikainak, eta galeria onenak ere bai. Gainera, filosofikoki, beste ikuspegi bat zuten. Bertan konturatu nintzen latino bat nintzela, erabat. Paisaiarekiko dugun ikuspuntua erabat bestelakoa da, eta normala da espresionismoa bertan sortzea, euren izaera gogorragatik; tradizionala den zerbait da.

Ur Mara espazioa 2010ean sortzen hasi zinen. Gainera, 2009an eta 2011n, ez zenuen lan berririk aurkeztu. Zenbaterainoko lana suposatu zuen museoak?

Beti nuen buruan hemen zerbait egitea, eta jasan genuen krisialdiarekin batera heldu zen proiektua. Urte hartan, artista guztiek izan genuen beherakada nabarmen bat, merkaturik ez zegoelako. Hori ez da berreskuratu oraindik, eta ez dut uste egingo denik ere. Bost urte igaro genituen erakusketa txukun bat egin gabe. Museo eta galeria asko desagertu ziren. Diru asko mugitzetik eta eskaerak eta lana gainezka izatetik, arazoak izatera igaro ginen, instituzioen ezezkoak jasotzera. Ezerezean geratu nintzen ni ere, eta hau inflexio-puntu moduko bat izan zen.

«Zer egingo dut?», galdetu nion neure buruari. Ur Mara artearen tradizioan eta transmisioan oinarritzen den espazioa da. Artista bakoitzak nahi duena egiten duela pentsatzen dutenak oker dabiltza. Oinarri batzuk eduki behar dira nahi den tokira heltzeko, segituan ezagutzen baitira egile berri baten erreferentziak zeintzuk diren. Tradizio bat dago, eta beharrezkoa da, ez soilik estetikoki, baizik eta filosofikoki ere, artearen ezagutza bat izatea. Eta tradizioaz aparte, informazioaren transmisio bat egotea ere ezinbestekoa da. Horretan oinarritzen da artea, eta pena bat da gaur egun dugun portaera gurekoia izatea. Tradizio horren barruan, museoak berak Chillida Leku espazioaren edota Alemaniako Inzell uhartearen oinarriak ditu.

Zertan da orain museoa?

Oinarrian, arlo desberdinetako egile ugari bildu ginen, guztiok elkarrekin artearekin lotutako espazio zabal bat zabaltzeko asmoz, modu xume batean. Argi genuen doakoa izango zela, eta urte hauetan zehar, tailerrak prestatzeaz gain, zenbait artista ere gonbidatu izan ditugu, euren erakusketak publikoari bistaratzeko. Urtean, mila bat pertsona bertaratzen dira, eta guztiak ere, interesa dutenak izaten dira. Asko dira Frantzia aldetik hurbiltzen direnak, honi eta hari buruz galderak egitera. Museo alternatibo bat da, baina ez da soilik artea ikusteko espazio bat; natura ere ikusi daiteke, artearekin zerikusia duena, eta gainera, gizakiaren arrasto ugari aurkitu daitezke.

Alkizak berak pisu berezia izango du zure bizitzan.

Noski. Herri txikiekiko, ordea, badut nolabaiteko ezkortasun bat. Uste dut, ez dutela jakin eta ez dakitela egoera berrietara moldatzen. Gizartearekiko urrundu egiten direla dirudi, kultura falta bat dutelako, eta hori oso nabaria da. Ipar Euskal Herrian, adibidez, herri txikietan, ia denek hartzen dute parte antolatzen diren gauzetan. Hemen, berriz, betikoek soilik. Auzolana bezalako proiektuak galdu egin dira, eta arazoa geroz eta handiagoa da. Guk Alkizan proiektu bat jarri genuen martxan museoari ekin aurretik, lau urte iraun zituena, eta izaera historikoa eta grafikoa zuten proiektuak berreskuratzea eta bistaratzea zuen helburua. Herritarren herenak hartu zuen parte proiektu honetan; zerbait historikoa izan zen.

«Arteak problema puntual bat du: oso irekia da»

«Ur Mara ez da soilik artea ikusteko espazio bat»

Euskal kulturan pisu handia duten bi proiektuetan parte hartu duzu azken urtean. Batetik, Baionan aurkeztu zenuen eskultura batean. Bertan ETAren amaiera islatzen zuen zuhaitza egin zenuen. Kritikak ere jaso dituzu. Zer duzu esateko?

Egindako lan guztiek izango dute zerbait kritikatzeko, eta politikan are gehiago. Tolosako margolari bat laguna nuen nik, eta haren pentsamendu bera nuen nik: euskaldun bat da, bi euskaldun, elkarren aurka beti borrokan. Kritikatzearena txorakeria bat da, baina arrisku hori hartzen dugu eskultura bat publiko egiten dugunean. Soka gainean etengabe zutik mantentzea oso zaila da, alde batera edo bestera erori gabe. Baionakoa artelan bahitu bat da, ez bainuen pentsatzen garai hauetan lan batek horrenbesteko indarra izango zuenik. Esaten da, lotsagatik edo, jendeak garai bateko lanak ezkutatzen dituela, gaizki ikusita daudelako, inoiz egingo ez balira bezala. Lan honi lehen ez zuen balore bat eman diote, oso sinbolikoa delako.

Bestetik, Telmo Esnalek zuzendutako 'Dantza' filmean, diseinatzaile zuzendari lanetan aritu zara. Zer eman ahal izan diozu lan honi?

Koreografia, dantzarien mugimenduak eta filmeko irudiei eman beharreko trataera kenduta, gainerako guztia nire esku egon da: atzealdeak, jantzien diseinua, atrezzoa, makillajea, orrazkera... Oso luzea eta oso neketsua izan da proiektu hau. Horrek badu alde on bat: bost urte on hauetan, ikasteko denbora izan dudala. Grabatzen hasi orduko, andreak moda eskolako liburu bat oparitu zidan, jostun berrientzako aholkuz betetakoa. Aholku batekin geratu nintzen: «Zuk kontrolatzen ez duzun oro, kontrolatzen duen beste norbaitek egin beharko du». Nik ez bainekien oso zehatz nolakoa izango zen soineko bat, jostunek zekiten bezala egingo zuten, eta ez nik nahiko nukeen moduan. Eta hori arazo bat izan zitekeen. Orduan, jostunei eta modari buruz gehiago ikasi beharra ikusi nuen. Bost urteetan, zeharkako ikaskuntza bat jaso dut, pelikula grabatzen genuen bitartean, eta gauza ugari ikasi ditut. Estetikoki ideiak nola irudikatu zen nire buruhausteetako bat. Bide batez, esan beharra daukat, hemengo erakundeek batere laguntzarik eman ez dioten film bat dela, euskalduna ez zela ziotelako. Agian, euskaldun bakarra zuen [barreak].

Zure iritziz, arteak zer nolako pisua du Euskal Herrian, eta euskal kulturaren barruan?

Nabarmen jaitsi da. Jada ez du pisurik. Artistek sozialki pisu handia zuten lehen gizarte mailan, aurpegia ematen zuten. Gizartea aldatu da, komunikatzeko moduak aldatu diren bezala, eta hortaz, artea egiteko erak ere bestelakoak dira gaur egun. Artista egoera kaotiko etengabean bizi da orain, kontsumo oso azkarra nahi dugu eta. Abiadura bizi horretan, ordea, xehetasunak erabat galtzen ditugu. Bai gizartean, baita politikan ere, Euskal Herria xehetasunak galtzen ari da, bere nortasuna galtzen ari da. Horiek gabe, euskaraz hitz egingo dugu, baina gure kulturaz ez gara ariko. Ingeles bat hona etortzen denean, eta halako batean euskara ikastea lortzen duenean, euskaraz hitz egiten dakiela esango genuke. Baina, euskalduna dela? Ez dakit bada. Kulturaren transmisioa behar baitu. Puntu horretan nahiko defizitarioak gara, hemendik kanpo gure kulturari buruz galdetzen digutenean, ez dugulako jakiten oso ondo zer kontatu. Abiadura handiegia hartu dugu, eta pentsatzen dugu, pasatako orok ez duela ezertarako balio.

Askok, ordea, artea ulertu egin behar dela diote. Arrazoiak eman behar izaten direla obra bat ona, txarra, polita edo itsusia den baieztatzeko. Hau da, usteak ez duela lekurik.

Artean guztiak du lekua; eduki behar ez dena beldurra da. Alemaniako artea ez dut esango hobea edo eskasagoa denik, baina badute desberdintasun bat: dialektika gustuko dute. Hori oso garrantzitsua da. Bertan ikasi nuen buruari egin beharreko galderak egiten: «Zer da hau?» edo «Nire barreneko zein lekutatik dator hau?». Eta askotan lagun-

du izan dit, beharrezkoa baita galdetzea. Egun osoa igarotzen dugu ideia bat buruan bueltaka dugula. Batzuek urteak igarotzen dituzte barruan. Nola lortuko dugu ezagutzen ez zaituen ikusle batek, erakusketa batean sartu eta zure lana ulertu ahal izatea? Hori ezinezkoa da. Beraz, normala da galdetzea, lagundu egiten baitu. Zerbait kontatzea ere, adibidez, nondik datorren esatea, oso garrantzitsua da, artistak bere burua kokatzeko.

Artista askok jarraitzen dute erakusketak egiten. Nolakoa da ikuslearekin duen hartu-emana eta zenbaterainoko garrantzia dute hemen?

Ikuslea bertan sartzen da, eta gehienez hamar bat minutu irauten ditu. Oso azkar ikusten du dena, eta askotan leku batetik mugitu ere egin gabe. Kasu batzuetan, gainera, obra bakoitzaren ondoan, lanaren inguruko prozesua azaltzen duen ikus-entzunezko bat jartzen da, kontzeptu batzuk aipatuz. Zerbait kontatzen duzu horrela. Hori ikusten, erakusketa guztia ikusten baino denbora gehiago pasatzen du. Eta prozesu guztia ikusi ondoren, obraren oinarria bilatzen hasten da, interes handiagoarekin. Jolas moduko batean murgiltzen da, eta 15 minutu izango zen kontu bat 40 minutukoa izatera pasatzen da. Erakusketak egitea beharrezkoa da. Arrotza egiten zaidana da hain aspaldikoak izatea. Arteak problema puntual bat du: oso irekia da. Baina lasai, ez baita inoiz amaituko.

Proiektu berriren bat al duzu buruan?

Ur Mara bera bakarrik asko jaten duen proiektu bat da. Bestela, suertatzen diren lanetan muturra sartzeko prest egongo gara, urte guzti hauetan egin dugun bezala.

ARTEAREKIKO IKUSPEGI BEREZIA

Obra bat: Altamirako bisonteak.
Artista bat: Jesus Gallego, ezeren truke guztia erakusteagatik.
Museo bat: Parisko Gizakiaren Museoa.
Eskultura ala ilustrazioa? Biak.
Egin duzun obra onena? Bat bera ere ez.
Eta kaskarrena? Bat bera ere ez.
Eskualdeko txoko bat: Asko, baina guztietan aspertzen naiz.

EUSKARA INDARBERRITZEA ETA NORMALIZATZEA, MISIO

Erakundeak eta eragile sozialak uztartuta, Tolosaldeko Euskararen Mahaia jarri dute abian, Galtzaundi Euskara Taldearen koordinazioarekin. Eskualdean euskararen normalizazioa lortzeko eztabaidagune eta eragile izateko jaio da.

Imanol Garcia Landa

Lehen pausoak ematen eta forma hartzen doa Tolosaldeko Euskararen Mahaia. Dagoeneko bi batzar egin dira Lehiberri zentroan, 2018ko urrian eta abenduan, eta 2019ko urtea egitasmoa finkatzeko erabiliko da, eta 2020-2022 urteetarako plangintza diseinatzeko.

Olatz Peon Tolosako alkateak eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak, lehenengo batzarraren aurkezpenean hartu zuen hitza, eta egitasmoak «berebiziko garrantzia» duela azaldu zuen. Balioan jarri nahi izan zuen Tolosaldeko Euskararen Mahaiak «hizkuntza politikak eskualde mailan modu komunean garatzeko» aukera emango duela. Batetik, «proiektuaren eskualdetasuna» jarri zuen, beraz, balioan, eta gogora ekarri zuen, «eremu euskaldun izateari nolabaiteko garrantzia eman nahi badiogu, Euskararen Mahaia nahitaezko erreminta da, bai eremu formalean eta baita informalean ere». Bestetik, egitasmoan jasota dauden printzipio batzuk jarri zituen balioan: aniztasuna, genero berdintasuna eta bizikidetza. «Instituzioez aparte, gure komunitatearen hainbat eragilek parte hartuko dute».

> Euskararen arnasguneen egoera aldaketa izan zen pizgarria, eta egoera hauskorra dela erakutsi dute datuek

Eusko Jaurlaritzatik zein Gipuzkoako Foru Aldunditik babestu den proiektua da, eta bertako ordezkariak izan ziren lehen batzar horretan, babesaren zergatia azaltzeko. Estibaliz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaritzako arduradunak zehaztu zuenez, «Eusko Jaurlaritzatik ikusten genuen bai ikerketaren ikuspegitik eta baita sustapenaren ikuspegitik ere horrelako proiektuak indartu egin behar direla». Euskararen erabilerak gune euskaldunetan behera egin duela eta helburu estrategiko batzuk jarri dituztela gaineratu zuen: «Euskararen transmisioa ugaritu beharra, bai etxean eta baita etxetik kanpo ere; euskal herritarren euskararen erabilera handitzea eta bere kalitatea hobetzea; eta euskara biziberritzeko ezagutzaren garapenean sakondu beharra. Eta bereziki arnasguneei eta eremu funtzionalei buruzko azterketak ugaritzeko konpromisoa hartu genuen». Estrategia horretan «Tolosaldeko proiektu honek paper garrantzitsua bete zezakeela» ikusi dute.

Bere aldetik, Beñat Egues aldundiko Hizkuntza Berdintasuna zuzendaritzako teknikariak zehaztu zuen aldundiarentzat «beti izan da kezka hizkuntza berdintasunaren eta gainontzeko zehar politiken kudeaketa». Gabeziak daudela, eta barrura begiratuz gero, «gabezi honen oinarrian egon daiteke zehar politika bakoitzak bere aldetik lan egin izan duela orain arte». Kanpora begiratuz gero, «azpimarratuko genuke lurraldea antolatuta dagoen moduan aldundiak zailtasunak izan dituela bai euskara zein gainontzeko zehar politikak aplikatzerako orduan; izan ere, zailagoa egiten da landa eremuetara iristea. Eta euskararen arnasguneetan ezin izan dugu nahi adina eragin». Aldunditik gobernantza eredu berria jarri dela martxan adierazi zuen Eguesek, «zeharkako politikak modu integratuagoan eta indartsuagoan kudeatu ahal izateko».

Hori horrela, Eguesek eragile publikoak eta pribatuak elkarrekin aritzearen garrantzia azpimarratu zuen. Hain justu, Galtzaundi Euskara Taldea Tolosaldean egiten ari den lana erakargarri egiten zaio aldundiari, «gobernantza eredu berri batean oinarrituta, politika publikoak sustatzen dituzten eragileen eta eragile sozialen elkar hartze hori sustatzen dela kontuan hartuta». Bide batez, Eguesek nabarmendu zuen proiektuak «orain arteko moldeak birformulatzeko saiakera» egiten duela eta «zeharkako politikak bateratzen saiatzen dela irismena areagotzeko».

Arnasguneetan aldaketa

Egitasmo guztiek bezala, Tolosaldeko Euskararen Mahaiak ere izan zituen bere hasiera proposatzeko arrazoiak. Euskararen arnasguneen egoera aldaketa izan zen pizgarria, eta egoera hauskorra dela erakutsi dute datuek. Azken urteetan euskaldunen kopuruak gora egin badu ere, ezagutzan gora egin bada ere, etxeko transmisioan eta erabileran behera egin da. Herri handienetan ezagutzaren igoera eman da, eskolaren eraginez batik bat, baina txikienetan,

eta bereziki landaguneetan kokatutakoetan, beherakada gertatu da, batzuetan oso nabarmena.

Datu horien aurrean, gogoeta prozesu bat abiatu zuen Galtzaundi Euskara Taldeak. Elkarte horrek antolatuta, Euskaltzaleen Topagunearen enkarguz hainbat adituk landutako *Berrikasi, Berrikusi* gogoeta aurkezteko Tolosako kultur etxean egin zen ekitaldia izan zen txinparta. Aditu horien tesiak bide eman zion, berariaz antolatutako Tolosaldeko Euskaltzaleen Foroa deitu zitzaion hausnarketari, 2016ko martxotik 2017ko martxora.

Bi eragin esparru identifikatu zituen foro horrek. Batetik, geografikoa, hau da, eskualde mailan eragin behar dela. Herriz herriko politika eta ekintza ildoak ez direla eraginkorrak ikusi zen, eskualde eta azpi-eskualdeko herri nagusiak eta horiek eta beren inguruko txikiak elkar eragina dutelako, baita hizkuntzaren arloan ere. Bestetik, ekinbidezkoa, hau da, herri guztietan euskaltzale taldeak eratu eta lanean jarri behar direla. Sektore desberdinak inplikatu behar direla ondorioztatu zen, eta euskalgintza instituzionala eta sozialaren arteko parez pareko lankidetza sustatu eta artikulatu behar dela.

Galtzaundi Euskara Taldeak egindako lanketa eta ateratako ondorioak hainbat erakunderi aurkeztea pentsatu zuen: Tolosako Udalari, ia guztiz udalerri honetara mugatzen baitzen artean elkarte horren jarduna, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Tolosaldea Garatzeni ere, pentsatzen zelako horrelako proiektu bat aurrera ateratzekotan erakunde horien inplikazioa eta guztien elkarlana beharrezkoa izango zela. Galtzaunditik azaldu denez, «harrera oso ona» izan zuen proposamenak. «Eskualde izaerako proiektua izateak eta erakunde publiko eta euskalgintza soziala biltzeak adostasunak lortzeko aukera eman zezakeela baloratu zen, eta unea interesgarria zela».

Aldundiak eskatuta Soziolinguistika Klusterra egiten ari zen ikerlan batean parte hartzea proposatu zitzaion Galtzaundiri, eta onartu egin zen. Ikerlan horren helburua, ondo funtzionatu zuten esperientziak aztertzea, gako garrantzitsuenak identifikatzea, eta gako hauek hautatutako proiektu batzuetan nola gauzatzen diren frogatzea da.

Galtzaundik proposatutako proiektuari pilotu izaera eman zitzaion eta berau gidatzeko ardura hartu zuen euskara taldeak. Proiektua hiru lan ildorekin jarri zen abian. Batetik, Galtzaundi Euskara Taldearen lan eremua eskualdera zabaltzea, herri guztietan euskaltzale taldeak sortu eta elkarren artean harremanean jartzea euskaltzale ehun aktiboa eratu eta egonkortzeko. Bestetik, gizarteko sektore desberdinak inplikatu eta sinergiak lantzeko bideak urratzea, sektore bakoitzaren ezaugarrietara egokituta. Eta, hirugarrena, Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzea, desberdinen arteko lankidetzatik eskualdeko hizkuntza politikaren aitzindaritza, lidergoa, hartzeko.

2019ra begira

Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren lehen bi batzarrak egin aurretik, Lan Mahaia deiturikoa eratu zuten, hain justu, Euskararen Mahaia berari forma emateko. Lan Mahaiak proposatutako misioa eta helburuak onartu ziren lehen batzarrean. Misioak zehatz-mehatz horrela dio: «Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan».

Hainbat helburu estrategiko zehaztu ziren Euskararen Mahaiarentzat. Batetik, gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea. Bestetik, eskualde mailako hizkuntza politika definitzea. Horrez gain, normalizazio erreala lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea. Eta, azkenik, gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin. Beste helburu batzuk ere zerrendatu ziren: bizikidetza eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea; garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea; eta bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.

Abenduan egindako bigarren batzarrean, 2019 urteari begira jarri ziren. Hainbat egitasmo zehaztu zituzten, eta horietako bat Euskararen Mahaia egonkortzeko urrats

Kike Amonarriz, Idoia Olano eta Jexux Murua , Tolosaldeko Euskararen Mahaiko bigarren batzarrean. ATARIA

sendoak egiteko konpromisoa hartzea eta gizartearen aurrean aurkeztea izan zen. Proiektua bideratzeko beharrezkoa da dirua eta, hori horrela, «hizkuntza politika garatzeko aurrekontu atala izendatu eta diru poltsa egokia» jar dezaten eskatuko zaie eskualdeko udalei. Bestalde, Mahaiaren behin betiko izaera, egitura eta funtzionamendua definitu, eta 2020-2022 urteen arteko jarduera plangintza landu nahi dute.

Beste zenbait egitasmo ere zerrendatu zituzten. Gizarte ehuna sendotzea, herriz herri eta herri artean, izan zen horietako bat. Sektoreen inplikazioa lortzea izan zen beste bat. Helduen euskalduntzeari dagokionez, eragileekin eskaintza aztertzea eta eskualde ikuspegia garatzea adostu zen. Tokiko hedabideen gaiak ere badu bere egitasmoa: eskaintza bermatzea eta eragileen proposamenak aztertzea. Azkenik, bizikidetzari dagokionez, harrera protokoloak eta bere aplikazioa gauzatzeko urratsak ematea.

> Egitasmoen artean gizarte ehuna sendotzea du helburu, herriz herri eta herri artean»

Proiektua aurrera nola eramango den ere proposatu zen. Batetik, batzarra, berariazko euskalgintzak osatua eta erabakigunea izango dena. Bestetik, zuzendaritza, hau da, orain arte Lan Mahaia izendapena hartu duena. Bertan, zenbait udalen, aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Uemaren ordezkariak izango dira, baita euskara teknikarien, Larramendi Bazkunaren, Galtzaundi Euskara Taldearen eta Tolosaldea Garatzenen ordezkariak ere; horrez gain, bizikidetza, genero berdintasuna, aniztasunarekin lotura duten eragile eta pertsonak, eta hezkuntza arloko ordezkariak, bai eskola nagusi zein eskola txikienak, eta helduen euskalduntzearenak. Talde eragile bat izatea ere proposatu da, zuzendaritzak izendatua, eta soslai teknikoa duten zuzendaritza kideez eta adituez osatua. Koordinazioa Galtzaundi Euskara Taldearen ardura izango da, Uemarekin harreman estu eta jarraituan. Azkenik, baliabideen aldetik, udaletara, aldundira eta Eusko Jaurlaritzara joko da.

www.ataria.eus · 107.6 fm
2019ko urtarrilaren 4a

EUSKARA ETA GIZARTE BERDINTASUNA

Euskararen Mahai batetik abiatuta Gizarte Berdintasunaren Mahai bat osatzea posible ote den hausnartu zuen Lorea Agirrek, Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren lehen batzarrean. Agirrek garbi azaldu zuen bere ustetan euskara dela «integrazio hizkuntza bakarra, gaur eta hemen», eta horrela arrazoitu zuen: «Hizkuntzaren egoerak ahalbidetzen digu integrazioa gure baitatik egitea. Euskal hiztunoi ezinbestekoa zaigu genero berdintasuna lantzen dutenak, etorkinekin lanean dabiltzanak edo integrazio soziala lantzen dutenak kontuan hartzea. Aldi berean, horiei ezinbestekoa izan beharko litzaieke euskarara hurbiltzea eta euskara bere zentroan jartzea. Nik beti esaten dut, euskarak beste horien guztien hizkuntza hitz egiten du, espainolak ez».

Euskarak hizkuntza hori hitz egiten du, Agirrek zehaztu zuenez, «menderakuntza modu bera pairatzen dugulako». Menderakuntza modu guztiak teknika berdina direla gaineratu zuen, «izan arraza menderakuntza, izan hizkuntz menderakuntza, kultur menderakuntza, jatorri menderakuntza, klase menderakuntza... sistema berdina da». Kondizio hori elkarbanatzeagatik, «modu berean gu gara normalizazioa, eraldaketa eta gizarte normalizazio bat ekarriko duen jendea», azaldu zuen Agirrek, eta gaineratu: «Buruan izan behar dugu komunitate dinamikoa, irekia, solidarioa, inklusiboa eta guztia barne bilduko dituena osatzeko ausardia izatea, eta sinestea benetan subjektuak gu garela».

> «Normalizazioa eskuen puntetan izan dezakegu, eta nola kudeatzen dugun horrek markatuko du etorkizunean izango ote garen eskualde euskaldun bat»
>
> LOREA AGIRRE

Tolosaldea gaur egun linguistikoki Kataluniaren pare dagoela esan zuen Agirrek: «Normalizazioa eskuen puntetan izan dezakegu, eta nola kudeatzen dugun horrek markatuko du etorkizunean izango ote garen eskualde euskaldun bat eta hizkuntza komuna eta integratzailea euskara izango den, edo beharbada hamarhamabost urtetan oso egoera ezberdinean egongo garen. Oso momentu onean gaude, baina aldi berean oso kontuan eta arduraz hartzekoa da».

Euskara eta gizarte berdinzaleak buruan edo jomugan izan behar direla dio Agirrek. «Horrek eskatzen du politika jakinak, askoren artean proposatuak, diseinatuak, eztabaidatuak, adostuak izatea, eta eskatzen du ausardia laborategi bat martxan jartzea. Tolosaldeko Euskararen Mahaia izan daiteke horren ernamuin bat».

Diogenes

Durangon «sei liburu, hiru disko eta egutegi bat» erosi dituela esan dizu. «Euskal kultura guk kontsumitu behar dinagu, nork bestela». Liburu bat kontsumitzea bera irakurtzea da, ez erostea, adiskide.

Gero sinetsi lagunari, fakturak ez diren ezer 'seriorik' irakurtzen ez duenari, baietz, Eguberrietan bonboiak bezala, bata bestearen atzetik eta tartean arnasarik hartu gabe irakurriko dituela sei (!) liburuak, eta hala egin duela esaten duenean, plaka bat jarriko diogula meritua aitortzeko, aurresku eta guzti. Liburu bakarra baina taxuz irakurriko balu sikiera...

AINHOA MENDILUZE
KALE KANTOITIK 107.6 FM

«Behin asteburua iritsi eta, ezingo gaitun etxean gelditu, ba!» entzun diozu beste bati. Esna pasatzen duten instant bakoitza planez betetzen tematzen denetako bat da. Horrelakoek eman zioten asteburuari sakratu kategoria. Harri eta zur uzten gaituzte haien tetris jokaldiek. Ondoren, astelehena iristean, pozarren egon ohi dira, ustez asmatu dutelako, noski, libre izandako segundo bakoitza zukutzen. Sinetsita daude hala izan behar duela. Ze, gauza jakina da planik ez egitea denbora galtzea dela, eta, denbora galtzea, bekatu mortala.

«Gorde, gorde, badaezpada». Zenbat aldiz entzun ote dugun hori, aurreko belaunaldien ahotan, nork eta guk, erabili eta botatzeko kulturan jaiotakook. Oroitzapenak pilatzen ditugu apaletan, souvenirrak, noizbait konponduko ditugun (gezurra!) gailu hondatuak eta beste. Modak beti bueltatzen direlakoan berriz janztea espero dugun arropa, armairuetan. Gorde, gorde, ez du eta kalterik egiten. Eta eskualde honetan, etxea husteko aitzakia gutxi: edozerk balio du inauterietako osagarri gisa.

«Zenbat eta gehiago, hobeto», kausa-ondorio harreman horrek bizi gaitu. Kuantitatiboan bizi gara, ez kualitatiboan; «asko maite zaitut» diogu, «oso maite zaitut» beharrean, kopuruan asko izateak balioa erantsiko balio bezala. Objektuen, bizipenen, emozioen, pertsonen kontsumora ohitu gara. Baina gero, atsedenarekin, pazientziarekin eta ezer gutxirekin konformatzearekin egiten dugu amets. Gu ulertuko gaituenik...

Agenda

OSTIRALA
URTARRILAK 4

ADUNA
ANTZEZLANA
12:00. *Beldartxo jatuna*, antzezlana, Didau Antzerki Faktoriaren eskutik izango da.

ANOETA
MAHAI INGURUA
18:00. Anoetako Gaztetxeak Neguko Solstizioa egitaraua antolatu du, eta iheslari eta deserriratuen inguruko mahai ingurua izango da bertan.

BELAUNTZA
LUDOTEKA
10:00–13:00. Gabonetako ludoteka zerbitzua izango da.

BERROBI
KARTING
10:00. Karting kotxeak egongo dira, pedalezkoak eta baita gasolinazko ibilgailuak ere, adin guztietarako.

LEABURU-TXARAMA
ANTZEZLANA
16:30. Leaburuko gazte gelan *Beldartxo jatuna* antzezlana eskainiko dute.

IBARRA
MARGOTZE LANAK
Gazte Zuloa margotuko dute, DBHko ikasleek.

TOLOSA
TXOTXONGILOAK
18:00. *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxuren amona?* txotxongilo ikuskizuna izango da, Topic zentroan.
ARTEA JANARIAREN TRUKE
18:30. Tolosako Musika Eskolaren eta Txotxongillo Taldearen eskuzabaltasunari esker, Topic zentroak Gabonetako musika kontzertu eta txotxongilo ikuskizun solidarioa antolatu du. Galkorra ez den janaria eraman beharko da, eta horren truke Tolosako Musika Eskolako ikasle eta irakasleek eskainiko duten musika kontzertuaz edota Txotxongilo Taldeak eskainiko duen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da.
MUSIKA
22:00. Valvesnight taldeak kontzertua eskainiko du Box.A elkartean.

LARUNBATA
URTARRILAK 5

ERREGE MAGOEN DESFILEAK

AMASA-VILLABONA
18:45. Amasatik abiatuko da Errege magoen desfilea eta Santiago egoitzan bisita egin ondoren, Errebote plazan geldialdia egingo dute. Bertan jaiotza ikusgai egongo da.
Ondoren. Erregeak Behar Zana frontoira joango dira eta banan-banan agurtzeko aukera izango dute.

AMEZKETA
18:00. Elizatik abiatuko dira hiru Errege magoak, eta Larrunarri frontoian hartuko dituzte haurrak.
Ondoren. Txokolate jatea.

ANOETA
18:30. Errege magoek kalejira egingo dute herriko txistulariekin San Juan kaletik plazaraino, eta bertan gozokiak banatuko dizkiete haurrei.

ALEGIA
18:30. Orendaingo bidetik abiatuta, Errege magoen desfilea izango da lehenengo herrian barrena, eta plazan bukatuko dute haurrekin egoteko.

ASTEASU
19:00. Kukute Guraso Elkarteak, Atzapar Pllota Taldeak eta Asteasuko Udalak antolatuta, Errege magoen desfilea egingo da. Elizmenditik Asteasuko frontoira zaldi gainean iritsiko dira erregeak.

BERASTEGI
18:30. Errege magoak plazara iritsiko dira eta opariak banatuko dituzte.

BERROBI
16:00. Begi-Urdin Gaztegunean ohiko bilketa egingo da.
18:00. Paje laguntzaileen indarberritze askaria.
19:00. Errege magoen etorrera Berrobira.
19:30. Opari banaketa.

BIDANIA-GOIATZ
18:30. Hernio aldetik Bidaniako plazara

Ametsetan bederen

ANJEL MARI PEÑAGARIKANO

Gure artetik aspaldi
joan zen bi mila,
geroztik hemeretzi
hau urte pila,
joan da abendua
hemen urtarrila,
egia balitz nere
asmo biribila:
gorroto zirtzila
berekasa hila,
ta zorion bila
maitasun isila,
ametsetan bederen
gerta dadila

Doinua
Betroiarena

Noizbait

Noizbait igerilekura joan gabe geratu al zara depilatu gabe zaudelako? Noizbait ilerik gabe utzi al duzu azala txortarako gogoz zaudelako? Eta, kontrara, noizbait utzi al dituzu ileak bere horretan sexurako gogorik ez duzulako? Noizbait, sexu-harreman betean zaudela, gelako sabai zuriari adi-adi begira egon al zara burua zuri-zuri uzten saiatzen? Noizbait berak noiz bukatu zain egon al zara? Eta noizbait bukatu duzula antzeztu al duzu? Noizbait margotu al duzu aurpegia ispilura begiratu eta ederrago ikusteko? Ederrago ikus zaitzaten? Luzatu betileak? Belztu betazalak? Bizitu masailezurrak? Ezkutatu granoak? Gorritu ezpainak? Noizbait aterik itxi al duzu ustez ederra ez izateagatik irekiko ez zizutelakoan? Noizbait begiratu duzu atzera gauaren ilunean? Azkartu pausoa? Hasi korrika? Heldu sendo giltza sortako giltzarik sendoena? Antzeztu telefono deia? Noizbait plazera eta osasuna ematen dizulako korrika hasi zarela argudiatu al duzu benetako helburua argaltzea zenean? Noizbait argaltzeko presioa sentitu al duzu? Noizbait konformatu al zara zure bikotekideak etxeko lanak egiten lagundu dizulako? Noizbait erosoak ez diren arropa janzteko hautua egin duzu besteen iritzi positiboa jasotzeko? Eta hotzetik behar adina babesten ez zaituztenak? Noizbait... Urtezaharrean?

OLATZ ARTOLA
KAZETARIA ETA BIDEOGILEA

Noizbait igerilekura joan gabe geratu al zara depilatu gabe zaudelako?

Zenbatetan?

Oharra 1: *Erantzun galdera hauei banan bana. Gizonezkoa bazara, behin erantzunda, galdetu zure gertuko emakume* bati ea baiezkorik erantzun duen.*

Oharra 2: *Baiezko erantzunen atzean matxismoa dago.*

KOMIKIA **NAIARA DELGADO PERREZ**

Atsotitzak, esaerak, aforismoak... ederrak!

Modu batera edo bestera, guztiok gara ezinduak, detaile kontua besterik ez da. (Stephen Hawking)

Elkar ezagutzen ez dutenen arteko triskantza izugarria da gerra, elkar ezagutu bai baina triskantza jasaten ez dutenen probetxurako. (Paul Valéry)

Batek baino gehiagok zor dio arrakasta estreinako neska lagunari..., eta arrakastari, bigarren neska laguna. (Bernard Shaw)

Arrazoia da modu berdintsuan banatutako gauza gutxienetako bat: denok pentsatzen dugu nahikoa arrazoi badugula. (Descartes)

Gaitasun politikorik izan ez eta erantzuna kartzela edo errepresioa bada, nabarmen-nabarmena da demokrazia falta. (Killian Jornet)

Hitz egin aurretik entzun; egin baino lehen pentsatu; amore eman aurretik gogotik saiatu; komunera joandakoan, begiratu paperik badagoen. (Auskalo)

Denak ditu bi ikuspuntu: okerra dena eta geurea. (Batek daki)

Bi urte ematen ditugu hitz egiten ikasten, eta bizitza osoa, isiltzen ikasten. (Ernest Hemmingway)

IÑAKI AZALDEGI ARRIETA
OINEZKOA

Telebista da begietatik sartzen den lo-eragile bakarra. (Vitorio de Sica)

Askatasuna ez da koldarrentzat. (Gandhi)

Gizarte batean zerbaitek kale egiten du bizikleta estatiko batean ibiltzera, autoz goazenean. (Bill Nye)

Ona izatea ez da ergela izatearen sinonimo. Ergel batzuek ez dute ulertzen ona izatea bertutea denik. (Ezta arrastorik ere)

Politikoak eta fardelak maiz aldatu behar dira..., eta biak arrazoi berberagatik. (Bernard Shaw)

Tolosaldeko bi idazle bikainek badute liburu eder bana, beraiek sortutako aforismoz beteta: Karlos Linazasorok, *Alferrik ez balitz*, eta Juan Kruz Igerabidek, *Labur txintan*. Oskia Karrera argazkilariak ere argitara eman berri du *Atsotitzak argazkitan* liburu ederra, esaera eta argazki bikainez hornitua.

Nik adina disfruta ezazue irakurtzen eta aforismoei punta ateratzen liburuen zuriuneetan idatziz.

Nik adina disfruta ezazue irakurtzen eta aforismoei punta ateratzen liburuen zuriuneetan idatziz

EGURALDIA

OSTIRALA 04	IGANDEA 06
LARUNBATA 05	ASTELEHENA 07

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA

Etxeko lanetarako. Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta bi pertsona zaintzeko. Tolosa erdirako izango litzateke, astelehenetik larunbatera eta jornada osoan. Urtarrilean bertan hasteko. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 600 562 073.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi *ataria@ataria.eus* helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK

URTARRILAK 4, OSTIRALA
IBARRA
Egunekoa. Mujika Martinez, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

URTARRILAK 5, LARUNBATA
TOLOSA
Egunekoa. Azpiroz Garlartza, L.
Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.

URTARRILAK 6, IGANDEA
TOLOSA
Egunekoa. Etxebeste Elosegi, J.M.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

URTARRILAK 7, ASTELEHENA
TOLOSA
Egunekoa. Olarreaga Aranburu, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA

OSTIRALA
Egun osoan. Euskal musika.

LARUNBATA
Egun osoan. Euskal musika.

IGANDEA
Egun osoan. Euskal musika.

ASTELEHENA
09:00. Pasahitza magazina. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuak utzitakoaren errepasoa, Iñaki Zubeldia *Kale Kantoitik*, agenda, bidaiarien tartea.
12:00. Entzuteko Jaioak musika saioa.
16:00. Zebrabidea.
18:00. Goizeko saioek utzitako onena.

107.6 fm
www.ataria.eus

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

tolosaldeko atariak

MARKETIN ETA SUSTAPEN ARDURADUNA ETA IGANDEETAKO KAZETARIA BEHAR DITU

ESKATZEN DA:
- Marketin arloko ezagutzak izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:
- Sustapen lanetan eskarmentua edukitzea.
- Diseinu edo bideogintza alorra kontrolatzea.
- Sare sozialak erabiltzen jakitea.
- Bulegoko programa informatikoak ezagutzea.

ESKAINTZEN DA:
- Kontratu iraunkorra.
- Lantokia Tolosan.

Erreferentzia: MART-SUST-2019

ESKATZEN DA:
- Kazetaria, ikus-entzunezko komunikazioa edo adar horretako ikasketak.
- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:
- Teknologia berrien ezagupena.

ESKAINTZEN DA:
- 6 hilabetetako kontratua, gutxienez.

Erreferentzia: KAZE-2019

Interesa duenak **Curriculum Vitae zehatza** bidali Tolosaldeko Atariara (San Esteban, 20. 20400 Tolosa) edo tkt@ataria.eus posta elektronikora, erreferentzia zehaztuz. **2019ko urtarrilaren 15a baino lehen.**

bertso jaialdia 2019

Ataria

Urtarrilak 19,
larunbata, 19:00etan
Tolosako Leidor antzokian

Sarrerak Salgai 12€

Tolosa: Orbela taberna
Ibarra: Galtzaundi taberna
Amasa-Villabona: Amasa okindegian

Maialen **Lujanbio**

Andoni **Egaña**

Amets **Arzallus**

Oihana **Iguaran**

Nerea **Ibarzabal**

Haritz **Mujika**

Gai jartzailea
Amaia **Agirre**

Antolatzailea

Babeslea

Laguntzaileak